

FUTBOLA



Jan Urban poloniarra hasieratik zelairatu daiteke gaurko partiduan. JOXE

Osasuna eta Logroñes taldeak aurrez aurre gaur Lizarran

A.B. / IRUNEA

Osasunak arratsaldeko sei terdietan jokatu du Lizarrako torneoaren finala, Logroñesen aurka. La Riojako taldeak bi eta bat irabazi zion Zaragozari, Polster austriararen bi golekin, eta aukera ederra izango dute bi taldeek euren joko nolobait hobetzeko.

Aukera garrantzitsuagoa izango da gorritxoentzat, dudarik gabe, iraila gero eta hurbilago dagoelako eta beren zaletuen aurrean jokatzeko dutelako. Zabalza kezkatu agertu zen Burgosen aurrean egin zuten jokorekin, eta ez dira baztertzekoak zenbait aldaketa hasierako hamaikakoan. Hain zuzen ere, lehendabiziko partiduan parte hartu ez zuten hiru jokalariek jokatzeko prest izango dira bihar, hiruak funtsezkoak Zabalzaren eskeman.

Urban, bere selekzioarekin Frantziakoaren aurrean jokatu ondoren —eta galdu, 1-5—, atzo heldu zen Iruñera, eta prest dago jokatzeko. Martin Gonzalez, bere aldetik, atzo

Osasunak gertutik jarraituko du Slaviako Sofia taldea

IRUNEA

Angel Vizcain gerentea eta Enrique Martin bigarren entrenatzailea, Sofia taldea ikustera joan dira. Nafarrek Bulgariako talde honen aurka jokatu dute irailean UEFA Txapelketako lehen kanporaketa. Bulgariarrek aste bukaera honetan hasi dute Liga Txapelketa, eta Slaviak etxean jokatu du lehen partidua.

Osasunarekin jarraituz, Camilo galziarrak jadanik Albacete taldearekin fitxatu du. Camilok ostiralean puskatu zuen Osasunarekin zuen hitzarmena, eta egun berean Albacete taldearekin sinatu zuen. Albacetek El Sadarren jokatu du Ligako lehen partidua, eta Camilok futbolera balio duela erakutsi nahiko dio Zabalzari, nahiz eta Albaceteren elastikoa jantzi.

Pumasean aurka erakutsi zuen maila kaskarra ahaztu nahi du gaur Realak

Carlos Xavier bi edo hiru hilabetez egongo da Realarekin jokatu gabe

Ostiralean Pumas talde mexicarraren aurka Atotxan eskaini zuten joko kaskarra ahaztu, eta Sporting de Portugal taldea gainditu nahi du gaur Realak. John Benjamin Toshackek ezin izango du Carlos Xavier portugaldarra zelairatu, ostiraleko lesioaren ondoren bi edo hiru hilabetez egon beharko bait du jokatu gabe.

M.A. / DONOSTIA

Realak Donostiako zaletuen aurrean egin zuen aurkezpena ezin kaskarragoa izan zen. Ideia eta jokorik gabeko talde donostiarra aisa menderatu zuen Mexicoko Universidad Autonoma taldeak. Gaur, arratsaldeko zortzietatik aurrera, Sporting de Portugal taldea izango da donostiarren arerioa. Denboraldiari esperantza apur batez aurre egiteko, donostiarrek ezinbestekoa dute portugaldarren aurka joko eta emaitza ona lortzea.

Liga hasieraren atarian, Toshackek ez du gustoko taldea aurkitu. Partiduko 25. minuturako galesak bi aldaketa egin zituen. Carlos Xavier eta Oceanorentzat oraindik ez du leku proposena aurkitu. Lehena oso pata ibili zen ostiraleko partiduan. Ikutu zituen baloi gehienak arerioen eskuetan bukatu zuten. Partidu kaskarrari, amaiera ezin kaskarragoa. Sporting de Portugal taldetik etortitako jokalaria lesionatu egin zen 55. minutuan. Lesio honen ondorioz portugaldarrak bi edo hiru hilabetez egingo ditu futbol zelaitik at. Etxebarren medikuak atzo goizean aztertu zuen portugaldarra, eta hasieran espero zen bezala lesioa nahiko larria da. Realaren inguruko iturri ez ofizialen arabera, Realeko zuzendaritza



Pumas taldearen aurka itxura kaskarra eskaini zuten donostiarrek. EFE

teknikoa atzo arratsaldean bildu zen Zubietan Carlos Xavierren egoera sakonki aztertzeko.

SPORTINGEKIN AUKERA BERRIA

Oceano aurrekoa baino hobeto aritu zen. Hala ere, gaintzeko taldekideek bezala, orohar partidu kaskarra egin zuen. Ezin uka portugaldarrak duen guztia eman zuela, baina Campos atezainaren aurrean aurkeztu zen bakoitzean kale egin zuen.

Bi jokalarik hauen talde ohiaren aurka jokatu behar du gaur Realak.

Gauzak asko aldatu beharko dira donostiarrek garaipena eskuratzeko. Mario Peres Ulibarrik zuzentzen duen taldeak goi mailako jokalariek ditu, eta prestakuntza jadanik nahiko aurreratuta dute.

Toshacken taldeak lan zaila du. Atotxako zaletuak ez ziren batere pozik irten Pumasean aurkako partidutik. Gaurkoan berriz galtzeak zaletuen haserrea ekarriko luke.

Pumas taldearen aldetik, Garcia aurrelaria nabarmendu zen. Hiru golak sartzeaz gain trebezia handia erakutsi zuen aurrelari gazteak.



ATHLETIC CLUB

ERAMAILE-ABONUEN BERRIZTATZEA

Abonatuak jakin erazten zaie Abuztuaren 27a arte berriztatuko direla 1991/1992 denboraldirako ABONUAK, aurreko txartela aurkeztu ondoren.

Abuztuaren 27az geroztik, Athletic-ek besterik gabe bere esku hartuko ditu berriztatuko gabeko sarrerak.

ABONATU BERRIAK

ZUTIKAKO SARRERAK: Abuztuaren 19tik aurrera.
SARRERA SAILKATUAK: Abuztuaren 28tik aurrera.

ABONUEN BALIAGARRITASUNA ETA PREZIOAK

- Abonua eramalearentzako dira eta prezioak bonifikazio berezia du, sarrera kopuruaren arabera.
- Txartela baliagarria da LIGA, ERREGE KOPA eta Bilbao A. C.aren partiduetarako. Ez da baliagarria izango Clubeko Egundietarako, Final Laurdenetarako, Errege Kopako Final Erdiarako eta lagunarteko partiduetarako.
- Abonua kanpoko partiduetarako, Abonatuak bere sarrera jasotzeko eskubidea izango du, horretarako zehaztuko diren egunetan eta publikoarentzako salmenta prezio berean.

Sarrerak

Sarrerak	Prezioak
Ekialdeko Tribunako Palkoa (1. ilara)	48.200 pta.
Ekialdeko Goi Tribuna (8 eta 9 ilarak)	48.200 pta.
Hegoaldeko Behe Tribuna (13. ilara)	48.200 pta.
Hegoaldeko Goi Tribuna (26. ilara)	48.200 pta.
Iparraldeko Behe Tribuna (13. ilara)	48.200 pta.
Alboko Aurrerakaldea (15. ilara)	48.200 pta.
Alboko Aurrerakaldea (1. ilara)	37.400 pta.
Ekialdeko Aurrerakaldea (15. ilara)	41.000 pta.
Hegoaldeko Zutikako Armilla	19.300 pta.
Iparraldeko Zutikako Armilla	16.000 pta.

18 urtez beheragokoak

Alboko Aurrerakalde Sailkatua (0. ilara)	17.300 pta.
Ekialdeko Aurrerakaldea (2. ilara)	17.300 pta.
Hegoaldeko Zutikako Armilla	8.900 pta.

Bulegoa: Mazarredo Zumardia, 23 —IBAIGANE—

Egunak: Berriztatzeak: Abuztuaren 27a arte, 09.00etatik 13.00 orduetara.
Beriak: ZUTIKAKO SARRERAK: Abuztuaren 19tik aurrera, 09.00etatik 13.00 orduetara.
SARRERA SAILKATUAK: Abuztuaren 28tik aurrera.



SAN MAMES FUTBOL ZELAIA

Asteartean, abuztuak 20, 20:30ean

Bazkidearen Omenaldirako Nazioarteko Partidua

ATHLETIC CLUB - KIEVeko DINAMO

PARTIDU HAU EZ DA ABONUEN SARTZEN

Bazkide Jn/And.ak: Stadium-era sartzeko beharrezkoa izango da karneta eta indarreango txartela aurkeztea.

Eramalearentzako Abonudun Jn/And.ak: Bakoitzak bere jarlekua gordeta izango du, bihar, astelehena, 17:30etik 20:00etara eta asteartean, 10:30etik 13:30era, alde zuzenetik dagokion txartela aurkeztuz.

JARLEKU-SALMENTA

TXARTELDEGIA: SAN MAMES FUTBOL ZELAIA

Bihar, astelehena, 17:30etik 20:00etara
asteartean, 10:30etik 13:30era eta 18:30etik aurrera.

EZAUGARRIA: 4 zk.dun TXARTELERIA

Stadium-eko Pertsonala: Aurkezteko ordua 18:30.

LANCIA BILASA rekin dabil Athletic

Banantzaile Ofiziala - Autonomia, 53 • Tel. (94) 427 58 20 • Bilbo

LANCIA BILASA rekin dabil Athletic

Banantzaile Ofiziala - Autonomia, 53 • Tel. (94) 427 58 20 • Bilbo